



2023-2024 IKASTURTERAKO JARRAIBIDEAK, ATZERRIKO HEZKUNTZA-SISTEMA BATEN IKASKETAK EGITEN DITUZTEN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IKASTETXEETAN EGINDAKO IKASKETAK BALIOZKOTZEKO ETA HOMOLOGATZEKO PROZEDURARI BURUZKOAK. (Espainiako atzerriko ikastetxeen araubideari buruzko maiatzaren 28ko 806/1993 Errege Dekretuaren 1. atala, II. kapitulua)

Maiatzaren 26ko 806/1993 Errege Dekretuak, Espainiako atzerriko ikastetxeen araubideari buruzkoak (ekainaren 23ko BOE), 8. artikuluan ezartzen du atzerriko ikastetxeetan egindako ikasketen onarpena unibertsitatez kanpoko atzerriko titulu eta ikasketak homologatzeko eta baliozkotzeko araudian xedatutakoari egokitu zaiola. Araudi hori urtarrilaren 29ko 104/1988 Errege Dekretuak (otsailaren 17ko BOE) eta 1988ko martxoaren 14ko (17ko BOE) eta 1996ko apirilaren 30eko (maiatzaren 8ko BOE) ministro-aginduek osatzen dute, eta biak abenduaren 16ko ECD/3305/2002 Aginduek aldatzen ditu (28ko BOE).

Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Unibertsitateen Estatu Idazkaritzaren 2018ko martxoaren 23ko Ebazpenak, 2018ko apirilaren 9ko Ebazpenaren bidez zuzenduak, jarraibideak ezartzen ditu Batxilergoko 1. mailarekin baliozkotzeko eta atzerriko tituluak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Espainiako Batxilergoko graduatu-titulueta homologatzeko kredentzietan agertu behar duen azken kalifikazioa kalkulatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legeak Autonomia Erkidegoko Ogasunaren tasak finkatzen ditu unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako atzerriko titulu eta ikasketak homologatu eta baliozkotzeko. Tasa horiek urtero aldatzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrek onartzen dituen Legeak. Hori dela eta, ordaindu beharreko tasa eskabidea aurkeztean indarrean dagoena izango da.

Aurreko urteetan bezala, atzerriko ikastetxeek beren ikasleak homologatzeko eskaerak aurkeztu ahal izango dituzte. Eskabide horiek hezkuntza-administrazioak horretarako prestatutako tresna informatikoaren bidez izapidetu beharko dira, ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren arabera, herritarrei arreta osoa eta kanal anitzekoa emateari eta zerbitzu publikoetara bitarteko elektronikoen bidez iristeari buruzkoa.

Ekainaren 28ko 135/2011 Dekretuak, Transferentzien Bitariko Batzordearen 2011ko ekainaren 22ko Akordioa onartzen duenak, irakaskuntza-arloan irailaren 26ko 2808/1980 Errege Dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako eginkizunak eta zerbitzuak gehitzeari buruzkoak (unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako atzerriko titulu eta ikasketak homologatu eta baliozkotzea), Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako atzerriko ikastetxeetan unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetako ikasketak aitortzearekin lotutako eginkizunak eskualdatzea jasotzen du.

Horregatik guztiagatik, Zuzendaritza honek erabaki du honako jarraibide hauek ematea,





JARRAIBIDEAK

LEHENENGOA

1. Hezkuntza Sailak atzerriko ikasketak homologatzeko eskabideen izapidetze telematika ezarrita dauka. Beraz, ikastetxe bakoitzak ezartzen duenaren arabera, eskaera bat egin beharko da ikasle bakoitzeko. Horretarako prozedura honako hau izango da:
 - a. Eskabidea tresna informatikoan betetzea, inprimatzea eta sinatzea.
 - b. Ordainketa-gutuna eskuratu eta online ordaintzea (inprimatu ordainketa-agiria), edo aurrez aurre, inprimatu ondoren.
2. Ikastetxeak a eta b inprimakiak erantsiko dizkio aplikazio informatikoari, ikasle bakoitzaren dokumentazio akademikoarekin batera.

BIGARRENA. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-tituluarekiko homologazioa eskatzeko.

Ikastetxeek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-tituluarekiko homologazioa Hezkuntza Sailaren aplikazio informatikoan eskatu duten ikasleen zerrenda ziurtatua aurkeztuko dute, jarraibide hauen I. eranskinean agertzen den ereduaren arabera.

Ikasle bakoitzari buruzko dokumentu hauek erantsiko dira:

- a. Eskabide-orria, aplikazio informatikoan beteta, ikaslearen izenean, tutoreak edo ordezkariak sinatuta.
- b. Ikaslearen nortasun-agiriaren fotokopia konpultsatua edo ikastetxeak zigilatua. Ordezkaririk badago, azken horren nortasun-agiriaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko da.
- c. Ikastetxeak emandako banakako ziurtagiria edo horren fotokopia konpultsatua, interesdunak atzerriko hezkuntza-sistemari dagokion mailako ikasturte edo gradu guztiak egin eta gainditu dituela egiaztatzen duena, bai eta Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Literatura eta Geografia eta Historia materiak ere, Hezkuntzako sailburuaren 2024ko otsailaren 1eko Aginduan aurreikusitakoaren arabera.

Ziurtagiri bakoitzak ikastetxean gainditutako kurtsoen edo graduen xehetasuna jaso beharko du, kasuan kasuko hezkuntza-sistemaren berezko izendapenaren arabera, eta horietako bakoitza zer ikasturte akademikotan egin zen, egindako ikasgaiak eta lortutako kalifikazioak adierazi beharko ditu. Kalifikazio horiek atzerriko hezkuntza-sistemaren berezko kalifikazio-eskalaren arabera jasoko dira, bai eta Espainiako estatuan indarrean dagoen hezkuntza-sisteman duten baliokidetasunaren arabera ere.

Derrigorrezko Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Literatura eta Geografia eta Historia materiak halakotzat identifikatuko dira ziurtagiri akademikoan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1., 2., 3. eta 4. mailen baliokideak diren maila edo gradu bakoitzari dagozkionak zehaztuz.

Banakako ziurtagirietan, honako hauek jaso beharko dira: ikastetxearen idazpurua eta zigilua, ziurtagiri horiek emateko eskumena duen hezkuntza-agintaritzaren sinadura eta zuzendari teknikoaren sinadura.



2.- Batxilergoko tituluarekiko homologazioa eskatzeko.

Ikastetxeek Batxilergoko tituluarekiko homologazioa Hezkuntza Sailaren aplikazio informatikoan eskatu duten ikasleen zerrenda ziurtatua aurkeztuko dute, jarraibide hauen II. eranskinean agertzen den ereduaren arabera.

Ikasle bakoitzari buruzko dokumentu hauek erantsiko dira:

- a. Eskabide-orria, aplikazio informatikoan beteta, ikaslearen izenean, ikasleak berak, tutoreak edo ordezkariak sinatuta. Azken kasu horretan, baimen-idazkia aurkeztu beharko du.
- b. Ikaslearen nortasun-agiriaren fotokopia konpultsatua edo ikastetxeak zigilatua. Ordezkaririk badago, azken horren nortasun-agiriaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko da.
- c. Indarrean dagoen tasa ordaindu izanaren jatorrizko egiaztagiria.
- d. Ikastetxeak emandako ziurtagiri indibiduala edo horren fotokopia konpultsatua, ikasleak atzerriko hezkuntza-sistemari dagokion mailako ikasturte edo gradu guztiak egin eta gainditu dituela egiaztatzen duena. Ziurtagiri bakoitzak ikastetxean gainditutako kurtsoen edo graduen xehetasuna jaso beharko du, kasuan kasuko hezkuntza-sistemaren berezko izendapenaren arabera, eta horietako bakoitza zer ikasturte akademikotan egin zen, egindako ikasgaiak eta lortutako kalifikazioak adierazi beharko ditu. Kalifikazio horiek atzerriko hezkuntza-sistemaren kalifikazio-eskalaren arabera eta Espainiako estatuan indarrean dagoen hezkuntza-sisteman duten baliokidetasunaren arabera jasoko dira. Espainiako hizkuntza eta kulturako derrigorrezko materiak eta, hala badagokio, euskara eta literaturakoak, hala identifikatuko dira ziurtagiri akademikoan.

Era berean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1., 2., 3. eta 4. mailen baliokide diren atzerriko gradu edo mailak egin eta gainditu izana egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte. Atzerriko hezkuntza-sistemaren berezko materiak jasotzen dituzten ziurtagiri berberetan, baina argi eta garbi bereizitako atalean, Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Literatura eta Geografia eta Historia derrigorrezko materiak gainditu direla adierazi beharko da.

Aurretik Espainiako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua edo horren homologazioa lortu duten ikasleen kasuan, ez dira aurreko paragrafoan adierazitako ziurtagiriak eskatuko, eta nahikoa izango da Espainiako tituluaren kopia bat edo homologazio-kredentziala aurkeztea.

- e. Diplomaren edo azken ziurtagiriaren fotokopia konpultsatua, homologazioa lortzeko baldintza den kasuetan (Bac frantsesa, Abitur alemana, High School, Nazioarteko Batxilergoa).

3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulura eta batxiler-titulura homologatzeko eskatzeko.

Ikastetxeek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulurako eta Batxilergoko titulurako homologazioa eskatu duten ikasleen zerranda ziurtatua aurkeztuko dute, jarraibide hauen III. eranskinean agertzen den ereduaren arabera. Ikasle bakoitzari buruzko dokumentu hauek erantsiko dira:

- a. Eskabide-orria, aplikazio informatikoan beteta, ikaslearen izenean, ikasleak berak, tutoreak edo ordezkariak sinatuta. Azken kasu horretan, baimen-idazkia aurkeztu beharko du.
- b. Ikaslearen nortasun-agiriaren fotokopia konpultsatua edo ikastetxeak zigilatua. Ordezkaririk badago, azken horren nortasun-agiriaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko da.
- c. Indarrean dagoen tasa ordaindu izanaren jatorrizko egiaztagiria.
- d. Ikastetxeak emandako ziurtagiri indibiduala edo horren fotokopia konpultsatua, ikasleak atzerriko hezkuntza-sistemari dagokion mailako ikasturte edo gradu guztiak egin eta gainditu dituela egiaztatzen duena. Ziurtagiri bakoitzak ikastetxean gainditutako kurtsoen edo graduen xehetasuna jaso beharko du, kasuan kasuko hezkuntza-sistemaren berezko izendapenaren arabera, eta horietako bakoitza zer ikasturte akademikotan egin zen, egindako ikasgaiak eta lortutako kalifikazioak adierazi beharko ditu. Kalifikazio horiek atzerriko hezkuntza-sistemaren berezko kalifikazio-eskalaren arabera jasoko dira, bai eta Espainiako estatuan indarrean dagoen hezkuntza-sisteman duten baliokidetasunaren arabera ere.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Literatura eta Geografia eta Historia materiak halakotzat identifikatuko dira ziurtagiri akademikoan, eta maila edo gradu baliokide bakoitzari dagozkionak zehaztuko dira.

Espainiako hizkuntza eta kulturako derrigorrezko materiak eta, hala badagokio, euskara eta literaturakoak halakotzat identifikatuko dira ziurtagiri akademikoan, Batxilergoko maila edo gradu baliokide bakoitzari dagozkionak zehaztuz.

- e. Diplomaren edo azken ziurtagiriaren fotokopia konpultsatua, homologazioa lortzeko baldintza den kasuetan (Bac frantsesa, Abitur alemana, High Schoola Batxilergoaren eta Nazioarteko Batxilergoaren kasuan).

4. Baldintza komunak:

4.1. Sinadurak:

Zerranda ziurtatuetan, idazpuruak, ikastetxearen zigiluak eta zentroaren arduradunaren sinadurak agertu behar dute.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulurako homologazioa eskatu duten ikasleen zerranda ziurtatuan, ikastetxeko erreferentziazko ikuskatzailearen oniritziagain, 806/1993 Errege Dekretuaren 12.2 artikuluan aurreikusitako zuzendari teknikoaren sinadura ere jaso beharko da.

Zuzendari teknikoaren sinadurak eta aipatutako ikastetxeko erreferentziazko ikuskatzailearen oniritzia derrigorrezko irakaskuntzei buruzkoak izango dira.



4.2. Aurrez egindako ikasketak:

Ikastetxe berean ez badira egin eskatzen den homologazioa eta/edo baliozkotzea eragin dezaketen ikasketa guztiak, ikaslea ikastetxean sartu aurretiko ikasketen ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko da. Aldez aurretik homologatutako edo baliozkotutako atzerriko ikasketen kasuan, edo aurrez Espainiako titulua lortu duten ikasleen kasuan, nahikoa izango da dagokion egiaztagiraren edo titularen fotokopia konpultsatua aurkeztea.

4.3. Kalifikazioak:

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua eta Batxilergoko titulua homologatzeko eskabideei buruzko ikasketa-ziurtagiriek maila bakoitzean egindako ikasgai guztien kalifikazioak jaso beharko dituzte, eta ez da nahikoa izango, jarraibide hauek betetzeko, ikasturteko kalifikazio orokorra adieraztea.

Kalifikazioak hezkuntza-sistemaren berezko kalifikazio-eskalaren arabera adieraziko dira, bai eta EAEn indarrean dagoen hezkuntza-sistemarekiko baliokidetasunaren arabera ere, derrigorrezkoak izan ezik, horiek Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen hezkuntza-sistemaren eskalaren arabera adieraziko baitira.

4.4. Eskabideak aurkeztea.

Dokumentazioa Hezkuntza Saileko Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzako Ikasketen Antolamendurako Zerbitzura bidaliko da.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako edozein lekutan ere aurkeztu ahal izango da.

4.5. Baldintzapeko inskripzio-bolanteak.

Unibertsitatera edo beste ikastetxe batzuetara sartzeko probetan matrikulatu nahi duten ikasleek izena eman ahal izan dezaten ezarritako epeetan, ikasle horiei dagozkien eskaerekin batera "Ikastetxeetan edo azterketa ofizialetan baldintzapean izena emateko txartela" aurkeztuko da, abenduaren 16ko ECD/3305/2002 Aginduaren (28ko BOE) II. eranskinean agertzen den ereduaren arabera, interesdunak edo bere legezko ordezkariak behar bezala beteta eta sinatuta.

4.6. Izapidetzea.

Unibertsitatez kanpoko atzerriko titulu eta ikasketak homologatzeko eta baliozkotzeko araudiaren arabera izapidetuko dira espedienteak.

Eugenio Jimenez Ibañez

IKASTETXE ETA PLANGINTZAREN ZUZENDARIA



I. ERANSKINA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO GRADUATU-TITULURAKO HOMOLOGAZIOA ESKATZEN DUTEN IKASLEEN ZERRENDATA ZIURTATUA (2/2006 Lege Organikoa, 3/2020 Lege Organikoak aldatua).

IKASTETXEA IDENTIFIKATZEKO DATUAK:

Hezkuntza-sistema:

Ikastetxearen izena:

Helbidea:

HOMOLOGAZIOA PROPOSATZEN ZAIEN IKASLEEN DATUAK:

	ABIZENAK	IZENA	NAZIONALITATEA	JAIOTEGUNA
1				
2				
3				
4				
5				
6				
7				
8				
9				
10				
11				
12				
13				
14				
15				
16				

..... jaunak/andreak,..... ikastetxeko zuzendariak, ZIURTATZEN DUT zerrenda honetan agertzen diren ikasleek, 1etik.... ra zenbakituta daudenek, DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO GRADUATU TITULUAREKIN homologatzeko ezarritako baldintzak betetzen dituztela (2/2006 Lege Organikoa, 3/2020 Lege Organikoak aldatua).

Data:

(Ikastetxeko zuzendariaren sinadura)

Espainiako hizkuntza eta kulturako irakaskuntzak koordinatzeko zuzendari teknikoak ZIURTATZEN DU zerrenda honetan agertzen diren ikasleek irakaskuntza horiek eta, hala badagokio, euskara eta literatura ikasi eta gainditu dituztela, Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen hezkuntza-sistemaren derrigorrezko mailen baliokideetan.

(Zuzendari teknikoaren sinadura).

Hezkuntza Ikuskaritzaren oniritzia.

II. ERANSKINA

BATXILER-TITULURAKO HOMOLOGAZIOA ESKATZEN DUTEN IKASLEEN ZERRENDA ZIURTATUA (2/2006 Lege Organikoa, 3/2020 Lege Organikoak aldatua).

IKASTETXEA IDENTIFIKATZEKO DATUAK:

Hezkuntza-sistema:

Ikastetxearen izena:

Helbidea:

HOMOLOGAZIOA PROPOSATZEN ZAIEN IKASLEEN DATUAK:

	ABIZENAK	IZENA	NAZIONALITATEA	JAIOTEGUNA
1				
2				
3				
4				
5				
6				
7				
8				
9				
10				
11				
12				
13				
14				
15				
16				

..... jaunak/andreak,..... ikastetxeko zuzendariak, ZIURTATZEN DUT zerrenda honetan agertzen diren ikasleek, 1etik.... ra zenbakituta daudenek, BATXILERGOKO TITULUarekin homologatzeko ezarritako baldintzak betetzen dituztela (2/2006 Lege Organikoa, 3/2020 Lege Organikoak aldatua).

Data:

(Ikastetxeko zuzendariaren sinadura)



III. ERANSKINA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO GRADUATU-TITULUAREKIN ETA BATXILERGOKO TITULUAREKIN HOMOLOGATZEKO ESKATZEN DUTEN IKASLEEN ZERRENDA ZIURTATUA (2/2006 Lege Organikoa, 3/2020 Lege Organikoak aldatua).				
IKASTETXEA IDENTIFIKATZEKO DATUAK:				
Hezkuntza-sistema:				
Ikastetxearen izena:				
Helbidea:				
HOMOLOGAZIOA PROPOSATZEN ZAIEN IKASLEEN DATUAK:				
	ABIZENAK	IZENA	NAZIONALITATEA	JAIOTEGUNA
1				
2				
3				
4				
5				
6				
7				
8				
9				
10				
11				
12				
13				
14				
15				
16				

..... jaunak/andreak,..... ikastetxeko zuzendariak, ZIURTATZEN DUT zerrenda honetan ageri diren ikasleek, 1etik.... ra zenbakituta daudenek, betetzen dituztela DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO GRADUATU TITULUAREKIN ETA BATXILERGOKO TITULUAREKIN homologatzeko ezarritako baldintzak (2/2006 Lege Organikoa, 3/2020 Lege Organikoak aldatua).

Data:

(Ikastetxeko zuzendariaren sinadura)

Espainiako hizkuntza eta kulturako irakaskuntzak koordinatzeko zuzendari teknikoak ZIURTATZEN DU zerrenda honetan agertzen diren ikasleek irakaskuntza horiek eta, hala badagokio, euskara eta literatura ikasi eta gainditu dituztela, Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen hezkuntza-sistemaren derrigorrezko mailen baliokideetan.

(Zuzendari teknikoaren sinadura).

Hezkuntza Ikuskaritzaren oniritzia.